

<b>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2017KO EKAINAREN 20AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</b>	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 20 DE JUNIO DE 2017.</b>
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Imanol Landa Jauregi jn.

<b><u>BATZARKIDEAK</u></b>	<b><u>V O C A L E S</u></b>
----------------------------	-----------------------------

Keltse Eiguren Alberdi And.  
Joseba Arregui Martínez Jn.  
Álvaro González Pérez Jn.  
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.  
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.  
Jose Luis Landa Arteche Jn.

<b><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></b>	<b><u>SECRETARIO GENERAL</u></b>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hogeian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a veinte de junio de dos mil diecisiete, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

269.- 2017KO EKAINAREN 13AN  
EGINDAKO OHIKO BILERAKO  
AKTA ONESTEIA.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2017ko ekainaren 13ko bilerakoa, hain zuzen.

OGASUNA, KONTUAK,  
EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA  
BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA  
EUSKARA

270.- KONTRATUAREN  
ONDORENGOTZA EGINA DEN  
BERRI EMATEA, LANARI  
FUNTZIONARIOENTZAT ETA LAN-  
KONTRATUKOENTZAT ETA  
HAIEN SENTARTEKOENTZAT  
HILETA-ZERBITZUAREN  
ESKAINNTZA ADJUDIKATUTAKO  
ENPRESA XURGATU IZANIK.

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta,

LEHENENGOA.- FUNESPAÑA, S.A. enpresak, A04128732 IFK, adierazi duen xurgapen bidezko bat egitearen jakitun geratzea. FUNETXEA, S.L. enpresaren, B85899714 IFK, ordezkari subrogatuko da GETXOKO UDALEKO FUNTZIONARIOEI ETA LAN-KONTRATUDUN LANGILEEI ETA BERAIEI ZUZENEKO SENTIDEEI HILETA-ZERBITZUAK EMATEKO ZERBITZUKO kontratutik eratorritako legezko ondorio guztietarako.

BIGARRENA.- Ontzat eta lege aldetik balioduntzat jotzea FUNESPAÑA, S.A. erakundeari kontratu hori ematea.

269.- APROBACIÓN DEL ACTA DE  
LA ANTERIOR SESIÓN  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA  
13 DE JUNIO DE 2017.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 13 de junio de 2017.

HACIENDA, CUENTAS,  
PROMOCIÓN ECONÓMICA,  
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD  
Y EUSKERA

270.- DACIÓN DE CUENTA DE LA  
SUCESIÓN DEL CONTRATO DE  
PRESTACIÓN DE SERVICIOS  
FUNERARIOS AL PERSONAL  
FUNCIONARIO Y LABORAL Y A  
SUS FAMILIARES DIRECTOS, POR  
LA ABSORCIÓN DE LA EMPRESA  
ADJUDICATARIA.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes,

PRIMERO.- Quedaron enterados de la fusión por absorción de la que da cuenta la mercantil FUNESPAÑA, S.A., con CIF A04128732, que queda subrogada en el lugar de la empresa FUNETXEA, S.L. con CIF B85899714, a todos los efectos legales derivados del contrato de SERVICIO DE PRESTACIÓN DE SERVICIOS FUNERARIOS AL PERSONAL FUNCIONARIO Y LABORAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y A SUS FAMILIARES DIRECTOS.

SEGUNDO.- Dar por buena y legalmente válida la sucesión del contrato de referencia a la entidad

Eskualdaketa legezko ondorio guztietarako egingo da. FUNESPAÑA, S.A. enpresa, A04128732 IFK zenbakiduna, FUNETXEA, S.L. enpresaren ordeztu, B85899714 IFK zenbakiduna, subrogatuko da.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri emango zaio Udaleko Kontu Hartzaitzari, Udal Diruzaintzari eta Fakturen erregistroari.

**271.- ROMO ETA AREETA AUZOETAKO LURPEKO APARKALEKUAREN IZENA ETA SARBIDEETAKO ETA TRAFIKOKO SISTEMA ALDARAZTEA, BAITA SEINALEAK HOBETZEKO BAIMENA EMAKIDADUNARI EMATEKO ERE.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: APARCAMIENTOS DE GETXO EN ROMO Y LAS ARENAS (LAS MERCEDES) SOCIEDAD CONCESIONARIA, S.L. enpresaren eskaera onartzea, GETXO UDALERRIKO ROMO ETA AREETA AUZUNEETAN IBILGAILUENTZAKO LURPEKO APARKALEKU BI ERAIKITZEKO ETA USTIATZEKO OBRA PUBLIKOAREN EMAKIDA kontratuaren adjudikaziodun den aldetik, aparkalekuaren sarbideen eta trafikoaren egungo sistema aldatzeari dagokionez, baina Azpiegitura arduradunak 2017-06-01eko txostenean azaldutako baldintzetan, ebazpen honen seigarren aurrekarian jasota daudenak.

FUNESPAÑA, S.A.

La transmisión se realiza a todos los efectos legales, quedando la empresa FUNESPAÑA, S.A., con CIF A04128732, subrogada en lugar de la entidad FUNETXEA, S.L., con CIF B85899714.

TERCERO.- Dar cuenta de la presente resolución a la Intervención municipal, la Tesorería municipal y el Registro de facturas.

**271.- MODIFICACIÓN DEL SISTEMA ACTUAL DE ACCESOS Y TRÁFICO, CAMBIO DEL NOMBRE DEL ESTACIONAMIENTO SUBTERRÁNEO DE ROMO Y LAS ARENAS Y AUTORIZACIÓN A LA CONCESIONARIA PARA MEJORAS DE SEÑALIZACIÓN.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Acceder a lo solicitado por la mercantil APARCAMIENTOS DE GETXO EN ROMO Y LAS ARENAS (LAS MERCEDES) SOCIEDAD CONCESIONARIA, S.L., como adjudicataria del contrato de CONCESION DE OBRA PUBLICA QUE TIENE POR OBJETO LA CONSTRUCCION Y SUBSIGUIENTE EXPLOTACION DE DOS ESTACIONAMIENTOS SUBTERRANEOS PARA VEHICULOS AUTOMOVILES EN LOS BARRIOS DE ROMO Y LAS ARENAS DEL MUNICIPIO DE GETXO, en relación con la modificación del sistema actual de accesos y tráfico del aparcamiento, si bien en las condiciones fijadas por el Responsable de Infraestructuras en su

informe de fecha 1/6/2017, las cuales han quedado recogidas en el antecedente sexto de esta resolución.

**BIGARRENA:** Emakidadunak eskatutakoa onartzea, "Las Mercedes" aparkalekuari "Areeta/Las Arenas" izena emateari dagokionez.

**SEGUNDO:** Acceder a lo solicitado por la concesionaria en relación con la sustitución del nombre del aparcamiento "Las Mercedes" por el de "Areeta/Las Arenas".

**HIRUGARRENA:** Emakidadunari baimena emango zaio Areetako aparkalekuan eta eremu komertzialean seinaleak hobetzeko, baina Azpiegitura arduradunak 2017-06-01eko txostenean ezarritako baldintzetan. Baldintza horiek ebazpen honen seigarren aurrekarian jaso dira.

**TERCERO:** Autorizar a la concesionaria para la realización de mejoras de la señalización del aparcamiento y del área comercial de Las Arenas, si bien en las condiciones fijadas por el Responsable de Infraestructuras en su informe de fecha 1/6/2017, las cuales han quedado recogidas en el antecedente sexto de esta resolución.

**LAUGARRENA:** Emakidadunak, aparkalekuaren urruneko kudeaketa errazte aldera, aparkalekuan instalazioak eta ekipamenduak egokitzeko prozesua hastearen jakinarazpena egiteari dagokionez, emakidadunari gogoraziko zaio baldintza teknikoen pleguaren 7.3.f) artikuluan ezarritakoa bete behar duela. "Prestazioa segurtasun eta eraginkortasun baldintza egokietan egiteko adina langile izango ditu zerbitzuak. Erabiltzaileek inolako deserosotasun, arrisku edo berandutzarik jasatea ekidingo da.

**CUARTO:** En cuanto a la comunicación, por parte de la concesionaria, del inicio del proceso de adaptación de las instalaciones y equipamientos en el aparcamiento para facilitar la gestión remota del mismo, recordar a la concesionaria su obligación de cumplir con lo establecido en el artículo 7.3.f) del pliego de condiciones técnicas: "El servicio estará dotado del personal necesario para que la prestación se efectúe en las debidas condiciones de seguridad y eficacia, evitando al usuario cualquier incomodidad, peligro o demora."

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri emango zaie Ondare eta Azpiegitura eta Zerbitzu sailei.

**QUINTO:** Dar traslado del presente acuerdo a los departamentos de Patrimonio e Infraestructura y servicios.

Modu berean, Hirigintza Diziplinako Sailari jakinaraziko zaio, emakidadunak egingo dituen aldaketek establezimenduaren jarduera lizentzian eragina izan lezaketen egiazta dezan.

Dar traslado igualmente al Departamento de Disciplina Urbanística, a los efectos de que comprueben si los cambios a realizar por la concesionaria pudieran afectar a

la licencia de actividad del establecimiento.

**272.- MERKATARITZAKO ENPRESA HAUTATZEA, OPARIEN HORNIDURA HORNITZAILE BAKARRA DUELA EGITEKO ESPARRU-AKORDIOAREKIN ZERIKUSIA DAUKATEN KONTRATUAK EGIKARITU DITZAN.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK  
LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2017-02-28an egindako bilkuran hartu zen 65. Erabakiaren bidez, baimena eman zen arauzko izapidea hasteko PROZEDURA IREKIAREN bidez eta ENPRESABURU BAKARRAREKIN SARIAK (TROFEOAK ETA AIXERROTA ERROTAREN KOPIA) HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOA egiteko. Esparru-akordio horretarako kalkulatu den gehieneko aurrekontua 20.000 euro izango da, BEZaren % 21 barne, iraungo duen urterako. Lizitatuzaileek euren proposamenetan eskainiko dituzte artikulua bakoitzari dagozkion ALEKO PREZIOAK.

Esparru-akordioaren urteko gehieneko aurrekontua 20.000 eurokoa izango da, % 21eko BEZa barne (16.528,93 euro gehi BEZaren % 21i dagozkion 3.471,07 euroak).

Adierazitako esparru-akordioak aldaketak izan ditzake. Aldaketa horien

**272.- SELECCIÓN DE LA MERCANTIL PARA LOS CONTRATOS DERIVADOS DEL ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE OBSEQUIOS (TROFEOS Y REPRODUCCIÓN DEL MOLINO DE AIXERROTA) CON UN ÚNICO EMPRESARIO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO  
PRIMERO.- Por acuerdo nº 65 adoptado por Junta de Gobierno Local celebrada en fecha 28/02/2017, se autorizó el inicio de la tramitación reglamentaria para la celebración, mediante el PROCEDIMIENTO ABIERTO, un ACUERDO MARCO DE SUMINISTRO DE OBSEQUIOS (TROFEOS Y REPRODUCCIÓN DEL MOLINO DE AIXERROTA) CON UN ÚNICO EMPRESARIO, cuyo presupuesto máximo estimado para el presente Acuerdo Marco será de 20.000 euros, 21% de I.V.A. incluido, para el año de su duración, siendo los licitadores los que en sus proposiciones ofertarán los PRECIOS UNITARIOS correspondientes a cada artículo.

El presupuesto máximo anual para el presente Acuerdo Marco será de 20.000 euros/año, 21% de I.V.A. incluido (16.528,93 € más 3.471,07 € del 21% de I.V.A.).

El presente Acuerdo Marco puede ser objeto de modificaciones. El límite del

zenbatekoaren mugak ez du urteko gehieneko aurrekontuaren % 20 gaindituko.

Esparru-akordioak URTEBETE iraungo du, hori formalizatzen denetik kontatzen hasita, eta berariaz erabakitako URTEBETEKO HIRU LUZAPEN izan ahalko ditu; dena den, esparru-akordioak ezingo du LAU (4) URTE baino gehiago iraun, luzapenak barne. Luzapenek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 23. artikuluan xedatutakoa beteko dute, kontratazio-organoak berariaz erabakiko ditu eta adjudikaziodunarentzat nahitaezkoak izango dira. Epe horretan zehar, adjudikaziodunek esparru-akordio horretako produktuei buruz jasotzen dituzten hornidura-eskaerei erantzun beharko diete.

Esparru-akordiorako kalkulatu den balioa 79.338,88 euro da, kontratuak izan ditzakeen luzapen eta aldaketak kontuan hartuz.

BIGARRENA.- 2017-03-15ean, lizitazio-iragarkia argitaratu zen BAOn, 52. zenbakian.

HIRUGARRENA.- 2017-03-31n, Getxoko Udaleko Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan, aurkeztutako hiru proposamenen dokumentazio orokorra jasotzen zuen gutun-azala ireki zen jendaurrean honako xedapen hauek betez: kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia, aplikaziokoak diren udal-xedapenak eta aipatutako kontratua adjudikatzeko espedienteko Administrazio Klausula Berezien Pleguetan jasotakoa. Hauek dira egin dituzten proposamenak:

importe de dichas modificaciones no superará el 20% del presupuesto máximo anual.

El plazo de vigencia del Acuerdo Marco será de UN AÑO, contado desde la fecha de formalización del Acuerdo Marco, siendo susceptible de TRES PRÓRROGAS ANUALES expresamente acordadas, sin que la duración total del Acuerdo Marco, incluidas las prórrogas, pueda exceder de CUATRO (4) AÑOS. Las prórrogas se acomodarán a lo dispuesto en el artículo 23 TRLCSP, acordándose de forma expresa por el órgano de Contratación y siendo obligatorias para el adjudicatario. Durante dicho plazo, los adjudicatarios estarán obligados a atender las peticiones de suministro que reciban sobre los productos objeto de dicho Acuerdo Marco.

El valor estimado del Acuerdo Marco asciende a 79.338,88 euros, teniendo en cuenta las posibles prórrogas y modificaciones del contrato.

SEGUNDO.- Con fecha 15/03/2017 se publica el anuncio de licitación en el BOB número 52.

TERCERO.- Con fecha 31/03/2017, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de contratación pública, así como de las disposiciones municipales que resultan de aplicación y según lo contemplado en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares del expediente para la adjudicación del contrato de referencia, se procede, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, del sobre que contenía la Documentación General de las tres proposiciones presentadas, a saber:

- 1.- ORBESPORT, S.L.
- 2.- ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A.
- 3.- MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA (Joyería Iñaki).

Lizitatzailerik guztiek aurkeztu duten dokumentazioa aztertu zen, eta hiru eskaintzak onartu ziren.

Jarraian, eta Administrazio Klausulen Pleguko 20. klausulan ezarritakoa betez, aurkeztutako eskaintzen AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK jasotzen zituzten gutun-azalak zabaldu ziren. Emaitza honako hau izan zen:

- 1.- ORBESPORT, S.L.
- 2.- ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A.
- 3.- MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA (Joyería Iñaki).

Examinada la documentación presentada por todos los licitadores se admitieron las tres ofertas.

A continuación y de conformidad con lo dispuesto en la cláusula 20 del Pliego de Cláusulas Administrativas se procedió a la apertura de los sobres que contenían los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA de las ofertas presentadas con el siguiente resultado:

<b><u>ENPRESA</u></b>	<b><u>AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA</u></b>
<b>1.- ORBESPORT S.L.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- AIXERROTA ERROTAREN ENBALAJEA. Balorazio hori egiteko, lizitatzailerik hornitu beharreko produktuen lagin bat aurkeztu beharko dute, baita enbalatzearen laginak ere.</li> </ul> <p style="text-align: center;">Poltsa batean aurkeztu da.</p>
<b>2.- ORFEBRERÍA CASTELLANA S.A.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- AIXERROTA ERROTAREN ENBALAJEA. Balorazio hori egiteko, lizitatzailerik hornitu beharreko produktuen lagin bat aurkeztu beharko dute, baita enbalatzearen laginak ere.</li> </ul> <p style="text-align: center;">Kartoizko kutxa batean aurkeztu da.</p>
<b>3.- MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA (Joyería Iñaki)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- AIXERROTA ERROTAREN ENBALAJEA. Balorazio hori egiteko, lizitatzailerik hornitu beharreko produktuen lagin bat aurkeztu beharko dute, baita enbalatzearen laginak ere.</li> </ul> <p style="text-align: center;">Gutun-azal batean aurkeztu da.</p>

<b><u>ENPRESA</u></b>	<b><u>DOCUMENTACIÓN PRESENTADA</u></b>
-----------------------	--

<b>1.- ORBESPORT S.L.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EMBALAJE DEL MOLINO DE AIXERROTA. Para poder proceder a esta valoración, los licitadores deberán presentar una muestra de los productos a suministrar, así como las muestras de embalaje.</li> </ul> <p>Se presenta en una bolsa.</p>
<b>2.- ORFEBRERÍA CASTELLANA S.A.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EMBALAJE DEL MOLINO DE AIXERROTA. Para poder proceder a esta valoración, los licitadores deberán presentar una muestra de los productos a suministrar, así como las muestras de embalaje.</li> </ul> <p>Se presenta en una caja de cartón</p>
<b>3.- MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA (Joyería Iñaki)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EMBALAJE DEL MOLINO DE AIXERROTA. Para poder proceder a esta valoración, los licitadores deberán presentar una muestra de los productos a suministrar, así como las muestras de embalaje.</li> </ul> <p>Se presenta en un sobre.</p>

Gero, lizitazioa eraentzen duten pleguekin bat etorritz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu zen, eta aurkeztutako eskaintzak KOMUNIKAZIO Sailera bidali ziren balorazio egokia egite aldera.

Seguidamente, y de conformidad con los pliegos que rigen la licitación, se procedió a foliar y numerar la documentación presentada y se remitieron las ofertas presentadas al Departamento de COMUNICACIÓN, a fin de que realizase la valoración pertinente.

LAUGARRENA.- 2017-04-27an Komunikazio Arloko arduradunak txostena egin zuen automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideei buruz, emaitza honekin:

CUARTO.- Por el Responsable del Área de Comunicación se emite informe, de fecha 27/04/2017, sobre los criterios evaluables de forma no automática, con el siguiente resultado:

<b>ENPRESA</b>  <b>EMPRESA</b>	<b>IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK</b> Aixerrotako errotaren bilgarria  <b>CRITERIOS NO AUTOMÁTICOS</b> Embalaje del molino de Aixerrota
ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A.	0 puntos
ORBESPORT, S.L. (KOPAS)	5 puntos
<b>MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA (JOYERIA IÑAKI)</b>	4 puntos

BOSGARRENA.- 2017-05-09an, Kontratazio Mahaiak Getxoko Udaleko Komunikazio Arloko arduradunak 2017-04-27an egindako txostena aztertu eta onartu du; aipatutako prozeduran automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideei buruzko txostena da. Hori egin

QUINTO.- Por los miembros de la Mesa de Contratación de 09/05/2017 fue analizado y asumido el informe emitido por el Responsable del Área de Comunicación del Ayuntamiento de Getxo, de fecha 27/04/2017, sobre los criterios evaluables de forma no



ondoren, AUTOMATIKOKI BALORATU BEHAR DIREN IRIZPIDEEI dagokien gutun-azala ireki da, eta handik honako emaitza hau atera da.

automática en el procedimiento de referencia. A continuación se procedió a la apertura del sobre correspondientes a los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

<b>LIZITATZAILEA</b>	<b>ESKAINITZA EKONOMIKOA</b> (16.528,93 €/urtean, BEZik gabe)  <u>70 puntu.</u>  - Kopa handia: 45,13 €/ale, BEZik gabe. - Kopa txikia: 26,90 €/ale, BEZik gabe. - Zilarrezko errotaren kopia: 101,52 €/ale, BEZik gabe. - Txapak: 4,20 €/ale, BEZik gabe.	<b>ENTREGATZEKO EPEA</b>  <u>25 puntu.</u>  24 ordu baino gutxiagoko epea
ORFEBRERIA CASTELLANA, S.A.	- Kopa handia: 40,61 €/ale, BEZik gabe. - Kopa txikia: 24,21 €/ale, BEZik gabe. - Zilarrezko errotaren kopia: 96,77-€/ale, BEZik gabe. - Txapak: 3,78 €/ale, BEZik gabe. Ez da guztizko zenbatekoa adierazi.	23 ordu
ORBESPORT, S.L.	- Kopa handia: 44,13 €/ale, BEZik gabe. - Kopa txikia: 25,90 €/ale, BEZik gabe. - Zilarrezko errotaren kopia: 100,52-€/ale, BEZik gabe. - Txapak: 4,20 €/ale, BEZik gabe. Guztizko zenbatekoa: 174,75 €.	2 ordu
<b>MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA</b> (JOYERIA)	- Kopa handia: 45,13 €/ale, BEZik gabe. - Kopa txikia: 26,90 €/ale, BEZik gabe.	12 ordu

IÑAKI)	- Zilarrezko errotaren kopia: 101,52-€/ale, BEZik gabe.  - Txapak: 4,20 €/ale, BEZik gabe.  Guztizko zenbatekoa: 177,75 €.	
--------	--	--

<b>LICITADOR</b>	<b>OFERTA ECONÓMICA</b> (16.528,93.-€/año sin I.V.A.) <u>70 puntos</u>	<b>PLAZO DE ENTREGA</b> <u>25 puntos</u> Plazo menor de 24 horas.
ORFEBRERIA CASTELLANA, S.A.	- Copa grande: 45,13.-€/unidad sin I.V.A. - Copa pequeña: 26,90.-€/unidad sin I.V.A. - Reprodu. molino plateado: 101,52.-€/unidad sin I.V.A. - Chapas: 4,20.-€/unidad sin I.V.A.	23 horas
ORBESPORT, S.L.	- Copa grande: 44,13-€/unidad sin I.V.A. - Copa pequeña: 25,90 -€/unidad sin I.V.A. - Reprodu. molino plateado:100,52 -€/unidad sin I.V.A. - Chapas: 4,20-€/unidad sin I.V.A. Suma total: 174,75 €.	2 horas
<b>MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA</b> (JOYERIA IÑAKI)	- Copa grande: 45,13 -€/unidad sin I.V.A. - Copa pequeña: 26,90 -€/unidad sin I.V.A. - Reprodu. molino plateado:101,52 -€/unidad sin I.V.A. - Chapas:4,20 -€/unidad sin I.V.A. Suma total: 177,75 €.	12 horas

Azkenik, esparru-akordio hau eraentzen duten administrazio-baldintzen pleguko 20. klausulan ("Enpresaburuak aukeratzeko eta loteak adjudikatzeko izapidea") ezarritakoarekin bat etorrituz, AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK biltzen dituzten gutun-azalen berri eman zaio

Por último, de acuerdo con lo establecido en la cláusula 20.-Trámite de Selección de empresarios y adjudicación del Pliego de Condiciones Administrativas que rigen este Acuerdo Marco, se dió traslado del contenido de los sobres que contenían los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA a la

Erosketa arduradunari, ondoko helburu hauekin:

1. Egiazta zezan aurkeztutako eskaintza ekonomikoak lote osorako zirela eta, hala ez balitz, hori adierazi zezan, kanpoan uzteko.

2. Eskaintza ekonomikoek lote bakoitzeko produktu bakoitzerako finkatutako gehieneko unitateko prezioak errespetatzen eta gainditzen ez zituztela egiaztatzeko, eta halakorik egin ezean, hori adieraztea kanpoan gera zedin.

3. Egiazta zezan eskaintza ekonomikoetan ezohiko edo neurritz kanpoko balioak zeuden.

4. Puntuak esleitu ziezazkien lote osoko eskaintza ekonomikoek, finkatutako gehieneko aleko prezioak errespetatuz ezohiko edo neurritz kanpoko baliorik ez bazuten edo, halakorik egon bazen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 152. artikulua ezarritako izapidea egin ostean.

5. Ekonomikoak ez diren irizpideak baloratzeko.

Nolanahi ere, erosketen arduradunak txostena egingo zuen, eta hark kontratazio-mahaiari helaraziko zion egokia iruditzen zaiona proposa zezan.

SEIGARRENA.- Erosketa arduradunak txostena egin zuen 2017-05-10ean.

ZAZPIGARRENA.- Kontratazio Mahaiko kideek 2017-05-16an aztertu eta onartu zuten Getxoko Udaleko Erosketa arduradunak 2017-05-10ean

Responsable de Compras a fin de que:

1. Comprobase que las ofertas económicas presentadas lo eran por lote completo y en caso contrario se indicase para su exclusión.

2. Comprobase que las ofertas económicas respetaban y no rebasaban los precios unitarios máximos fijados para todos y cada uno de los productos de cada lote y en caso contrario se indicase para su exclusión.

3. Comprobase la existencia o no de valores anormales o desproporcionados en las ofertas económicas.

4. Asignase puntuaciones a las ofertas económicas que lo fuesen por lote completo y respetando los precios unitarios máximos fijados en caso de que no hubiera habido valores anormales o desproporcionados o, de haber habido, tras el trámite previsto en el artículo 152 del TRLCSP.

5. Valorase los criterios no económicos.

De todo lo anterior, se emitiría informe por la Responsable de Compras del cual se daría traslado a la Mesa de Contratación para que propusiese lo que estimase pertinente.

SEXTO.- Por la Responsable de Compras se emite informe con fecha 10/05/2017.

SÉPTIMO.- Por los miembros de la Mesa de Contratación, de fecha 16/05/2017 fue analizado y asumido el informe emitido por la Responsable de

egindako txostena. Bertan, honako hau adierazi zuen:  
(...)

1) Aurkeztu diren hiru eskaintza ekonomikoak eranskinean jasotako artikuluko guztietarako dira.

2) Hiru eskaintza ekonomikoek eranskinean dauden produktu guztietarako ezarritako gehieneko aleko prezioak errespetatzen dituzte, gainditu gabe.

3) Ez dago ez ohiko edo neurritz kanpoko baliorik.

4) Eskaintza ekonomikoari 70 puntu eman zaizkio

ORBESPORT, S.L. 66,24 puntu  
ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A. 70,00 puntu  
MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA 65,12 puntu

5) Emateko epea: 25 puntu

ORBESPORT, S.L. 25 puntu  
ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A. 2,17 puntu  
MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA 4,17 puntu

Compras del Ayuntamiento de Getxo, de fecha 10/05/2017, donde manifestaba:  
(...)

1) Las tres ofertas económicas presentadas por lo son para todos los artículos recogidos en el Anexo.

2) Las tres ofertas económicas respetan y no rebasan los precios unitarios máximos fijados para todos y cada uno de los productos que figuran en el Anexo.

3) No existen valores anormales o desproporcionados.

4) Oferta Económica se le otorgan 70 Puntos

ORBESPORT, S.L. 66,24 Puntos  
ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A. 70,00 Puntos  
MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA 65,12 Puntos

5) Plazo de entrega 25 Puntos

ORBESPORT, S.L. 25 Puntos  
ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A. 2,17 Puntos  
MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA 4,17 Puntos

**JASOTAKO PUNTUEN LABURPENA  
RESUMEN DE PUNTOS OBTENIDOS**

<b>Sozietatearen izena Razón Social</b>	<b>Eskaintza ekonomikoa Oferta Económica</b>	<b>Emateko epea Plazo de Entrega</b>	<b>Guztira Total</b>
ORBESPORT, S.L.	66,24	25	91,24
ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A.	70	2,17	72,17
MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAITUA	65,12	4,17	69,29

Kontratazio Mahaia osatzen duten kideek,  
AUTOMATIKOKI EBALUATU AHAL

Los miembros que integraban la Mesa  
de Contratación, visto el informe de

DIREN IRIZPIDEAK baloratzeko txostena (Erosketa arduradunak 2017-05-10ean egin) ikusita eta AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK baloratzeko txostena (Getxoko Udaleko Komunikazio Arloko arduradunak 2017-04-27an egin) ikusita, proposatu dute kontratu hau "ORBESPORT, S.L." izeneko sozietateari, B-48170088 IFK, adjudikatzea, hura delako eskaintzarik abantailatsuena udalaren interesentzat, balorazio-koadro honen arabera:

valoración de los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA emitido por la Responsable de Compras de fecha 10/05/2017 junto con el informe de valoración de los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA emitido por el Responsable del Area de Comunicación del Ayuntamiento de Getxo de fecha 27/04/2017 propusieron adjudicar el contrato de referencia a la razón social "ORBESPORT, S.L." con CIF: B-48170088, al ser la oferta más ventajosa para los intereses del Ayuntamiento de acuerdo con el siguiente cuadro de valoración:

<b>SOZIEATEAREN IZENA</b>	<b>IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>IRIZPIDE AUTOMATIKOEN BALORAZIOA</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>RAZON SOCIAL</b>	<b>VALORACION CRITERIOS NO AUTOMATICOS</b>	<b>VALORACION CRITERIOS AUTOMATICOS</b>	<b>TOTAL</b>
ORBESPORT, S.L.	5	91,24	96,24
ORFEBRERÍA CASTELLANA, S.A.	0	72,17	72,17
MARÍA PURIFICACIÓN URIBE SAIUA - Joyería Iñaki -	4	69,29	73,29

ZORTZIGARRENA: 2017-05-18an "ORBESPORT, S.L." gizarte enpresari dei egin zaio, SPKLTBren 146.4 eta 151. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako. Espedientean agertzen dira erakundeak lege horretan aipatutako baldintzak betetzeari buruzko frogagiriak, hau da, honako hau:

- a) Administrazioarekin kontratuak egiteko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

Aurreko egitatezko aurrekariei ondoko

OCTAVO.- En fecha 18/05/2017 se requiere a la empresa social "ORBESPORT, S.L." a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 del TRLCSP, constanding en el expediente la correspondiente documentación justificativa de que la entidad referida cumple los requisitos recogidos en el citado precepto, a saber:

- a) Documentación acreditativa de cumplir con las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración.
- b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

A los anteriores antecedentes de hecho

zuzenbideko oinarriak aplikatu behar zaizkie.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTBE), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuta.

II.- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; haren bidez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

III.- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua; haren bidez, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartu zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

IV.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bategina; eta haiei lotuta aplikatu beharreko gainerako legeria.

V.- Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio proposatu den adjudikazioa egitea, kontratazio-espedita honetan kontratazio-organo eskuduna izateagatik.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak eskatuta, Udaleko Gobernu Batzarrari hauxe igorri zaio kontuan har dezan:

ERABAKI PROPOSAMENA:

son de aplicación los siguientes

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

II.- Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público en lo que no se oponga al TRLCSP.

III.- Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en lo que no se oponga al TRLCSP.

IV.- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

V.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Concejal Responsable del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA: HAUTATZEA  
"ORBESPORT, S.L." enpresa, IFK B-  
48170088 duena, ENPRESABURU  
BAKARRAREKIN SARIAK  
(TROFEOAK ETA AIXERROTA  
ERROTAREN KOPIA) HORNITZEKO  
ESPARRU-AKORDIOTIK  
ondorioztatutako kontratuak  
burutzeko, bere eskaintza ekonomikoan  
eskaintako aleko prezioetan.

Esparru-akordioaren urteko gehieneko  
aurrekontua 20.000 eurokoa izango da,  
% 21eko BEZa barne (16.528,93 euro  
gehi BEZaren % 21i dagozkion 3.471,07  
euroak).

Esparru-akordioak URTEBETE iraungo  
du, hori formalizatzen denetik  
kontakten hasita, eta berariaz  
erabakitako URTEBETEKO HIRU  
LUZAPEN izan ahalko ditu; dena den,  
esparru-akordioak ezingo du LAU (4)  
URTE baino gehiago iraun, luzapenak  
barne. Luzapenek Sektore Publikoko  
Kontratuen Legearen testu bateginaren  
23. artikuluan xedatutako beteko dute,  
kontratazio-organoak berariaz  
erabakiko ditu eta  
adjudikaziodunarentzat nahitaezkoak  
izango dira. Epe horretan zehar,  
adjudikaziodunek esparru-akordio  
horretako produktuei buruz jasotzen  
dituzten hornidura-eskaerei erantzun  
beharko diete.

BIGARRENA: Sektore Publikoko  
Kontratuen Legearen testu bateginaren  
156.1. artikuluan xedatutakoari  
jarraikiz, adjudikazioduna Kontratazio  
Zerbitzuko bulegoetan agertu beharko  
da (Foru kalea, 8) kontratua  
administrazio-agirian formalizatzeko,  
erabaki honen jakinarazpena jaso eta  
hamabost egun balioduneko epean,  
gehienez ere.

PRIMERO: SELECCIONAR a la  
mercantil "ORBESPORT, S.L.", con CIF:  
B-48170088, para la celebración de los  
contratos derivados del ACUERDO  
MARCO DE SUMINISTRO DE  
OBSEQUIOS (TROFEOS Y  
REPRODUCCIÓN DEL MOLINO DE  
AIXERROTA) CON UN ÚNICO  
EMPRESARIO, por los precios  
unitarios ofertados en su oferta  
económica.

El presupuesto máximo anual para el  
presente Acuerdo Marco será de 20.000  
euros/año, 21% de I.V.A. incluido  
(16.528,93 € más 3.471,07 € del 21% de  
I.V.A.).

El plazo de vigencia del Acuerdo Marco  
será de UN AÑO, contado desde la  
fecha de formalización del Acuerdo  
Marco, siendo susceptible de TRES  
PRÓRROGAS ANUALES  
expresamente acordadas, sin que la  
duración total del Acuerdo Marco,  
incluidas las prórrogas, pueda exceder  
de CUATRO (4) AÑOS. Las prórrogas  
se acomodarán a lo dispuesto en el  
artículo 23 TRLCSP, acordándose de  
forma expresa por el órgano de  
Contratación y siendo obligatorias para  
el adjudicatario. Durante dicho plazo,  
los adjudicatarios estarán obligados a  
atender las peticiones de suministro  
que reciban sobre los productos objeto  
de dicho Acuerdo Marco.

SEGUNDO: El adjudicatario, de  
conformidad con lo indicado en el  
artículo 156.1 del TRLCSP, deberá  
comparecer en las oficinas del Servicio  
de Contratación, sitas en la calle Fueros  
nº 8, para formalizar el contrato en  
documento administrativo, en un plazo  
máximo de quince días hábiles desde la  
recepción de la notificación del presente  
acuerdo.

HIRUGARRENA: Erabaki hau prozeduran parte hartzen duten lizitatuzaileei jakinaraztea, Getxoko Udaleko Komunikazio Arloko arduradunak 2017-04-27an emandako txostenarekin batera eta Erosketa arduradunak 2017-05-10ean emandako txostenarekin batera.

TERCERO: Notificar el presente acuerdo a los licitadores participantes en el procedimiento junto con el informe emitido por el Responsable del Area de Comunicación del Ayuntamiento de Getxo de fecha 27/04/2017 y el informe emitido por la Responsable de Compras de fecha 10/05/2017.

**273.- MERKATARITZAKO ENPRESA HAUTATZEA, KALE-ARGIETAKO LANPEN HORNIDURA HORNITZAILE BAKARRA DUELA EGITEKO ESPARRU- AKORDIOAREKIN ZERIKUSIA DAUKATEN KONTRATUAK EGIKARITU DITZAN.**

**273.- SELECCIÓN DE LA MERCANTIL PARA LOS CONTRATOS DERIVADOS DEL ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE LÁMPARAS DE ALUMBRADO PÚBLICO CON UN ÚNICO EMPRESARIO.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

EGITATEZKO AURREKARIAK  
LEHENENGOA.- Udaleko Gobernu Batzarrak 2017-02-07an hartutako 29. erabakiaren bidez, enpresaburu batekin  
ARGI PUBLIKOETARAKO  
LANPARAK HORNITZEKO  
ESPARRU-AKORDIOA adjudikatzeko izapideak hasi ziren.

ANTECEDENTES DE HECHO  
PRIMERO.- Por Acuerdo nº29 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 7/2/2017 se inició la tramitación para la adjudicación de un ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE LÁMPARAS DE ALUMBRADO PÚBLICO, con un solo empresario.

Honako hauek dira esparru-akordioaren ezaugarri nagusiak:

Las características principales que se fijaron para dicho Acuerdo Marco se son las siguientes:

- Xede du enpresa bat hautatu, gehieneko prezioak ezarri eta beraren ondorioz sortuko diren kontratuak eraentzeko oinarriak ezartzea; hain zuzen, kontratuak egingo dira adierazitako materialak hornitzeko,

- Constituye su objeto la selección de una empresa, la fijación de precios máximos y el establecimiento de aquéllas bases que regirán los contratos que de aquél se deriven, para el suministro de los materiales indicados



sortzen diren beharren arabera.

- Esparru-akordioak bi urteko indarraldia izango du, hura formalizatzen denetik zenbatzen hasita, eta urtebeteko bi luzapen izan ahalko ditu jarraian.

- Esparru-akordioak iraun bitartean sortu daitezkeen kontratu guztietarako, 65.108,26 euroko aurrekontua aurreikusi da, gehienez ere, BEZaren % 21 barne (32.554,13 euro urtean). Nolanahi ere, ez da aurrekontu-gastuko konpromisoa izango, zeina esparru-akordioaren ondorioz sortzen den kontratu bakoitzerako egingo den.

- Esparru-akordioaren balioa 161.425,44€ da gutxi gorabehera, kontuan izanik aldatu egin daitekeela, urtean zenbatekoa guztira gehienez ere % 50ean handituz (BEZa barne).

Egintza berean onetsi ziren baldintzen pleguak, teknikoak nahiz ekonomiko-administratiboak, eta horiexek eraenduko dute akordioa.

BIGARRENA: Derrigorrezko lizitazio iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017-02-15ean.

Lizitazio-epea amaitu ondoren, bost eskaintza aurkeztu dira.

HIRUGARRENA: 2017-03-03an, Kontratazio Mahaiak eskuordetuta (Mahaiaren 2015-06-19ko Erabakiaren bidez) jarduten duen pertsona bakarreko administrazio organoa den aldetik, Ondare, Kontratazio eta

según las necesidades que vayan surgiendo.

- El plazo de vigencia del Acuerdo Marco será de dos años, a partir de la formalización del mismo, siendo prorrogable por dos períodos sucesivos de un año de duración cada uno de ellos.

- El presupuesto máximo estimado para el conjunto de contratos que puedan derivarse durante la duración del Acuerdo Marco es de 65.108,26 euros, I.V.A. 21% incluido (a razón de 32.554,13 euros/año), sin que suponga un compromiso de gasto presupuestario, el cual tendrá lugar para cada contrato derivado del Acuerdo Marco.

- El Valor Estimado del Acuerdo Marco asciende a 161.425,44€, teniendo en cuenta la posibilidad de modificación del mismo, consistente en un incremento máximo total del 50% del presupuesto máximo anual (I.V.A. incluido).

En el mismo acto se aprobaron los pliegos de cláusulas, tanto técnicas como económico-administrativas, que han de regir el Acuerdo.

SEGUNDO.- El preceptivo anuncio de licitación es publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia en fecha 15/2/2017.

Finalizado el plazo de licitación, se presentan cinco ofertas.

TERCERO.- En fecha 3/3/2017, en acto público celebrado por la Responsable de Patrimonio, Contratación y Compras, como órgano administrativo unipersonal que actúa por delegación de la Mesa de Contratación (delegación

Erosketako arduradunak egindako jendaurreko ekitaldian lehenengo gutun-azala ireki zen, dokumentazio orokorra biltzen zuena, eta, dokumentazioa egiaztatu eta gero, bigarren gutun-azala ireki zen, automatikoki ebaluatzen ez diren irizpideak dauzkana. Azken hori Azpiegitura eta Zerbitzu Sailari bidali zitzaion, horrek balora zezan.

otorgada mediante Acuerdo de la Mesa de fecha 19/6/2015), se realiza la apertura del sobre primero - conteniendo la documentación general- y tras la comprobación de tal documentación, se procede a la apertura también del sobre segundo, conteniendo los criterios evaluables de forma no automática, siendo esta última documentación remitida al Departamento de Infraestructura y Servicios para su valoración.

Sailak txostena egin zuen 2017-03-30ean, eta honako hau izan zen emaitza:

El Departamento citado emite informe el día 30/3/2017, siendo el resultado el siguiente:

<b>IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK</b>	<b>BAIMEN</b>	<b>ELECTRO VIZCAYA</b>	<b>N. OSES</b>
<b>CRITERIOS NO AUTOMATICOS</b>			
B.- Horniduraren baldintzak B.- Condiciones de suministro	<b>10,00</b>	<b>15,00</b>	<b>20,00</b>
D.- Hobetzeko proposamenak D.- Propuestas de mejora	<b>4,00</b>	<b>0,00</b>	<b>2,00</b>
1.- Horniduraren segurtasuna 1.- Seguridad del suministro	<i>2,00</i>	<i>0,00</i>	<i>0,00</i>
2.- Horniduraren kalitatea eta materialak 2.- Calidad del suministro y materiales	<i>2,00</i>	<i>0,00</i>	<i>2,00</i>
<b>GUZTIRA</b>	<b>14,00</b>	<b>15,00</b>	<b>22,00</b>
<b>TOTAL</b>			

Lizitazioan parte hartzen duten beste bi enpresei dagokienez, "ALMACENES ELECTRICOS VASCONGADOS, S.A (AELVASA)" eta "BERDIN NORTE, S.L.", txostenak horiek baztertzea proposatu du, bigarren gutun-azalean (irizpide ez automatikoak) hirugarren gutun-azaleko (irizpide automatikoak) datuak sartu zituztelako.

En cuanto a las otras dos empresas participantes en la licitación, "ALMACENES ELECTRICOS VASCONGADOS, S.A (AELVASA)" y "BERDIN NORTE, S.L.", el informe propone su exclusión por haber incluido en el sobre segundo (criterios no automáticos) datos que habían de formar parte del sobre tercero (criterios automáticos).

LAUGARRENA.- Txosten hori Kontratazio Mahaiak 2017-04-04ko batzarrean aztertu eta onartu zuen. Horrenbestez, mahaiak bi enpresa horiek lizitaziotik baztertzea erabaki zuen, aipatutako zioarengatik eta horrela Administrazio klausulen

CUARTO.- Dicho informe fue analizado y asumido por la Mesa de Contratación en su sesión de fecha 4/4/2017. En consecuencia, la misma acordó la exclusión de la licitación de las dos citadas empresas, por el motivo citado y contravenir con ello lo

pleguaren 20. klausulan xedatutakoa urratzeagatik.

dispuesto en la cláusula 20 del Pliego de cláusulas Administrativas.

Gero, modu automatikoan ebaluatzen diren irizpideak jasotzen zituen gutunazala zabaldu zuen mahaiak; hona hemen lortutako emaitza:

A continuación, la Mesa procedió a la apertura del sobre correspondiente a los criterios evaluables de forma automática, con el siguiente resultado:

<b>LIZITATZAILEAK</b>	<b>ESKAINITZA EKONOMIKOA</b>	<b>EMATEKO EPEA</b>	<b>BERMEAREN EPEA</b>	<b>BILTEGIEN KOKALEKUA</b>
<b>LICITADORES</b>	<b>OFERTA ECONOMICA</b>	<b>PLAZO DE ENTREGA</b>	<b>PLAZO GARANTIA</b>	<b>EMPLAZAMIENTO ALMACENES</b>
BAIMEN	12.618,06	15. atala: 1-7 egun natural Gainerakoak: 1-4 egun natural  Apartado 15- de 1 a 7 días naturales Resto – 1 a 4 días naturales	25 hilabete  25 meses	9,3 km
ELECTRO VIZCAYA	16.909,68	15. atala: 7 egun Gainerakoak: 2 egun  Apartado 15- 7 días Resto – 2 días	18 hilabete  18 meses	2,4 km
N. OSES	20.205,00	15. atala: 6 egun Gainerakoak: 2 egun  Apartado 15- 6 días Resto – 2 días	25 hilabete  25 meses	12 km

Kontratazio Mahaiak, era berean, erabaki zuen hura igortzea proposamena egin zuen sailari, ondoko alderdiei buruzko txostena egin zezan:

La Mesa de Contratación decidió igualmente dar traslado al departamento proponente a fin de que emitiera informe sobre los siguientes aspectos:

- Eskaintzek administrazio-pleguko 4. bis klausula betetzen dute, ezohiko edo neurritz kanpoko balioei buruzkoa.

- El cumplimiento por las ofertas de la cláusula 4 bis del Pliego administrativo, relativa a valores anormales o desproporcionados.

- Egiaztatzea lizitatuak aurkeztutako eskaintza ekonomikoek produktu guzti-guztietarako ezarritako gehieneko aleko prezioak errespetatzen dituztela eta gainditzen ez dituztela.

- Comprobación de que las ofertas económicas presentadas por los licitadores respetaban y no rebasaban los precios unitarios máximos fijados para todos y cada uno de los productos.

- Automatikoki ebaluatu

- Asignación de puntos por los

daitezkeen irizpideengatiko puntuak.

Criterios evaluables de forma automática.

BOSGARRENA.- Proposamena egin zuen sailak txosten hori egin zuen 2017-04-28an. Bertan, batetik adierazi zen "Baimen, S.A."ek eta "N. Osés, S.A."k aurkeztutako eskaintzek pleguetan ezarritako gehieneko aleko prezioetako batzuk gainditzen dituztela.

QUINTO.- En fecha 28/4/2017, El Departamento proponente emitió el antedicho informe. En el mismo, por un lado se puso de manifiesto que las ofertas presentadas por "Baimen, S.A." y por "N. Osés, S.A." exceden varios de los precios unitarios máximos fijados en pliegos.

Beste alde batetik, txosten teknikoak argi utzi zuen, modu berean, "Electro Vizcaya, S.A." enpresak aurkeztutako eskaintzak balio anormalak zeuzkala, Administrazio klausulen pleguaren 4 bis atalean xedatutakoaren arabera.

Por otro lado, el informe técnico evidenció así mismo que la oferta presentada por la empresa "Electro Vizcaya, S.A." contenía valores anormales, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 4 bis del Pliego de Cláusulas Administrativas.

SEIGARRENA.- Txosten hori Kontratazio Mahaiak 2017-05-02ko batzarrean aztertu eta onartu zuen. Ondorioz, mahaiak erabaki zuen, batetik, "Baimen, S.A." eta "N. Osés, S.A." enpresak lizitaziotik baztertzea, haien eskaintzak gehieneko aleko prezioetako batzuk gainditzen dituelako, Administrazio klausulen pleguaren 22. atalean xedatutakoaren kontra.

SEXTO.- Dicho informe fue analizado y asumido por la Mesa de Contratación en su sesión de fecha 2/5/2017. En consecuencia, la misma acordó, por un lado, la exclusión de la licitación de las empresas "Baimen, S.A." y por "N. Osés, S.A.", por exceder su oferta varios de los precios unitarios máximos fijados, contraviniendo así lo dispuesto en el apartado 22 del Pliego de Cláusulas Administrativas.

Bestetik, mahaiak proposatu zuen "Electro Vizcaya, S.A." enpresarentzat SPKLTBEaren 152. artikuluan ezarritako izapideak bete zitezela, hau da, entzunaldi izapidea ematea, eskaintza ekonomikoa justifikatze aldera.

Por otro lado, la Mesa propuso que para la empresa "Electro Vizcaya, S.A." se siguieran los trámites previstos en el artículo 152 del TRLCSP, es decir, dándole trámite de audiencia para la justificación de su oferta económica.

Entzunaldi izapide hori 2017-05-04an eman zitzaion enpresa horri.

Dicho trámite de audiencia fue otorgado a la empresa mencionada el día 4/5/2017.

Enpresak justifikazio-dossiera aurkeztu zuen 2017-05-09an.

La empresa presentó dossier justificativo en fecha 9/5/2017.

Kontratazioa proposatu zuen sailak txostena egin zuen 2017-05-10ean.

El Departamento proponente de la contratación emitió informe, en fecha

Bertan, dossierra aztertu ondoren, enpresaren eskaintzaren bideragarritasuna berretsi zuen.

ZAZPIGARRENA.- Txostenaren berri eman zen Kontratazio Mahaiak 2017-05-16an egindako bileran. Osorik onartu zen.

Ondorioz, kontratua "ELECTRO VIZCAYA, S.A." enpresari, A 48115000 IFK, adjudikatzea proposatu zen, haren eskaintza delako prozesuan jarraitzen duen bakarra eta kontratazioa eraentzen duten pleguetan ezarritako preskripzio guztiak betetzen dituelako.

ZORTZIGARRENA: Errekerimendua egin zitzaion enpresa horri 2017-05-17an, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 146.4. eta 151. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako. Espedientean jasota zegoen agirien bidez egiaztatu zela lizitatzailerak kontratatzeke lege ezarritako baldintzak betetzen dituela.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTBE), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuta.

II. Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren aurka egiten ez duten alderdietan.

III.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bategina eta hari lotuta aplikatu behar diren gainerako legeak.

10/5/2017, en el cual, tras analizar el citado dossier, dió por confirmada la viabilidad de la oferta de la empresa.

SÉPTIMO.- De dicho informe se dió cuenta en la sesión que la Mesa de Contratación celebró el día 16/5/2017, siendo aquél asumido en su integridad.

En consecuencia con todo ello, se propuso la adjudicación del contrato a la empresa "ELECTRO VIZCAYA, S.A.", con C.I.F. nº A 48115000, por ser su oferta la única que continúa en el proceso y cumplir con todos las prescripciones fijadas en los pliegos que rigen la contratación.

OCTAVO.- En fecha 17/5/2017 se requiere a la empresa a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, constanding en el expediente la acreditación documental del cumplimiento por parte del licitador de las condiciones establecidas legalmente para contratar.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

II.- Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se oponga al TRLCSP.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

IV.- Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio proposatzen den adjudikazioa egitea, kontratazio-espedita honetan kontratazio-organo eskuduna baita.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak eskatuta, Udaleko Gobernu Batzarrari hauxe igorri zaio kontuan har dezan:

#### ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENENGOA: ARGI PUBLIKOETARAKO LANPARAK HORNITZEKO ESPARRU- AKORDIOAREN lizitaziotik "ALMACENES ELÉCTRICOS VASCONGADOS S.A.", A-48166169 IFK, eta "BERDIN NORTE, S.L.", B-95291779 IFK, enpresak baztertu direla jakitera ematea. Bazterketa hori Kontratazio Mahaiak erabaki zuen 2017-04-04ko bilkuran, bigarren gutun-azalean (irizpide ez automatikoak) hirugarren gutun-azalean (irizpide automatikoak) sartu behar ziren datuak sartu zirelako, Administrazio klausulen Pleguaren 20. klausulan xedatutakoaren kontra.

BIGARRENA: "BAIMEN, S.A.", A-48220370 IFK, eta "ELECTRICIDAD N. OSES S.A.", A-48117881 IFK, enpresei lizitaziotik baztertu direla jakinaraztea. Bazterketa hori Kontratazio Mahaiak erabaki zuen 2017-05-02ko bilkuran, pleguetan ezarritako aleko gehieneko prezioetako batzuk gaintitzen zizutzelako enpresa horiek euren eskaintzetan.

HIRUGARRENA: "ELECTRO VIZCAYA, S.A." enpresa, A 48115000 IFK zenbakiduna, hautatzea aipatutako esparru-akordioa izenpetzeko, haren eskaintzaren aleko prezioetan.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Concejal Responsable del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

#### PROPUESTA DE ACUERDO

